

# KANTUZ TXIKI

*KANTUTEGIA*



GAREAN EUSKALDUNON ELKARTEA



## 1. OSTIRALA

OSTIRALA, IRITSI DA,  
IRITSI DA, OSTIRALA  
POZEZ BETETAKO EGUNA  
ZATOZ GUREKIN LAGUNA

MANTALAK ETXERA ETA  
OPORRAK BI EGUNETAN  
ASTELEHENEAN BERRIRO ERE  
BILDUKO GARA GURE ESKOLAN

LARALALA...

## 2. KORROKA DANTZAKA

KORROKA DANTZAKA, DANTZAKA KORROKA,  
KARRIKETAN KORRIKA  
KORROKA DANTZAKA, DANTZAKA KORROKA,  
KARRIKETAN KORRIKA

1. KOKORIKA KOKORIKA OILARRA BEZALA  
*KORROKA DANTZAKA, DANTZAKA KORROKA...*

2. SALTOKA SALTOKA IGELA MODUAN  
KOKORIKA KOKORIKA OILARRA BEZALA

*KORROKA DANTZAKA, DANTZAKA...*

3. TXINGOKA TXINGOKA FLAMENKOA BEZALA  
SALTOKA SALTOKA IGELA MODUAN  
KOKORIKA KOKORIKA OILARRA BEZALA

*KORROKA DANTZAKA, DANTZAKA...*

4. ATZERAKA ATZERAKA KARRAMARRO MODUAN  
TXINGOKA TXINGOKA FLAMENKOA BEZALA  
SALTOKA SALTOKA IGELA MODUAN  
KOKORIKA KOKORIKA OILARRA BEZALA

*KORROKA DANTZAKA, DANTZAKA...*

## 3. ALDAPEKO

ALDAPEKO SAGARRAREN  
ADARRAREN PUNTAN  
PUNTAREN PUNTAN  
TXORIA ZEGOEN KANTARI.  
XIRU-LIRULI, XIRU-LIRURI,  
NORK DANTZATUKO OTE DU  
SOINUTXO HORI?

## 4. NI EURI TANTA BANINTZ

NI EURI TANTA BANINTZ,  
EGINGO NUKE ZURE SUDURREAN TXIRRIK,  
LURRERA ERORTZEAN SALTO  
TA HODEIETARA JOANGO NINTZATEKE BERRIZ!



## 5. OH, BUGI, BUGI

*OH, BUGI, BUGI, BUGI BAI, BAI!*  
*OH, BUGI, BUGI, BUGI BAI, BAI!*  
*OH, BUGI, BUGI, BUGI BAI.*  
*PARAN-PAN, PAN-PAN, PAN, HEY!*

HAU DA NIRE BEHATZA,  
HAU DA BESTE BEHATZA,  
HAU DA NIRE ESKUA,  
HAU DA BESTE ESKUA.

*OH, BUGI, BUGI, BUGI...*

HAU DA NIRE UKONDOA,  
HAU DA BESTE UKONDOA,  
HAU DA NIRE SORBALDA,  
HAU DA BESTE SORBALDA.

*OH, BUGI, BUGI, BUGI...*

HAU DA NIRE HANKA,  
HAU DA BESTE HANKA,  
HAU DA IPURDIA,  
BERRIZ IPURDIA.

*OH, BUGI, BUGI, BUGI...*

HAU DA BELARRI BAT,  
ETA HAU DA BESTEA,  
BURUA BEHERAKA,  
BURUA GORAKA.

*OH, BUGI, BUGI, BUGI...*

HAU DA NIRE BEGIA,  
HAU DA BESTE BEGIA,  
HAU DA SUDUR BAKARRA,  
HAU DA AHO ZULOA.

## 6. PINTTO PINTTO

PINTTO PINTTO GURE TXAKURRA DA TA,  
PINTTO PINTTO BERE IZENA DU

TXURI-BELTZA DA TA  
EZ DU KOSKA EGITEN.  
BEGI BAT IXTEN DU  
JOLASTU NAHI BADU.  
*PINTTO PINTTO...*

BELARRIAK LUZE  
ISATSA JOSTAKIN.  
KALERA IRTETEKO  
BETI PRESAREKIN.

## 7. JOXEMARI ZAPATALARI

ZAPA ZAPA ZAPATALARI  
ENE JOXE MARI  
ZAPATAK KONPONTZEN ARI DA  
KOLPEKA KANTARI.  
JOXE MARI ZAPATALARI  
KANTARI ALAIA,  
ESKU BATEAN MAILUA DU  
BESTEAN PORROIA.  
KOLPE, KOLPE, KOLPEKA  
JOSI ETA JOSI  
JOSI ETA JOSI.  
KOLPE, KOLPE, KOLPEKA  
JOSI ETA JOSIRIK ZAPATAK.  
HARIA HARTU ARGIZARIA  
ORRATZAN ZATZ!  
KORAPILO BAT, KORAPILO BAT!

## 8. HAIZEAREN HERRIRA

HAIZEAREN HERRIRA JOAN NINTZEN BEHIN BATEAN  
TXOKO DENAK ZEUDEN USAIN GOXOZ BETEAK  
LA LARALA LARA...  
TXOKO DENAK ZEUDEN USAIN GOXOZ BETEAK

HAIZEAREN HERRIAN LORATZEN DAGO BIZITZA,  
LORETAN ZELAIK, LOREZ-LORE ZUHAITZAK  
LA LARALA LARALA...  
LORETAN ZELAIK, LOREZ-LORE ZUHAITZAK.

POZIK EGOTEN NINTZEN KRABELIN DENAK  
USAIN TZEN,  
HAN LORE ARTEAN, ARI NAIZ JOLASEAN.  
LA LARALA LARALA...  
HAN LORE ARTEAN, ARI NAIZ JOLASEAN  
USAIN GOXOZ BETEAK  
LOREZ-LORE ZUHAITZAK

## 9. MUSUA

ZU, EMAN MUSU  
BEGIAK TXIMISTAZ BETETA NAUKAZU.  
ZU, EMAN MUSU  
SABELEKO TRUMOI HOTSA DIRUDIZU.

ZU, EMAN MUSU  
MINGAINEAN ELUR MALUTA ZAITUT ZU.  
ZU, EMAN MUSU  
BIHOTZA HEGO-HAIZEZ PUZTEN DIDAZU.

ZU, EMAN MUSU  
NIGAN URTAROAK LORATZEN DITUZU.  
ZU, EMAN MUSU  
ZUHAITZEK BEZALA BESARKA NAZAZU.

## 10. POZIK BAZAUDE

POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA  
POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE EGIN TXALOKA

POZIK BAZAUDE IGERI EGIN  
POZIK BAZAUDE IGERI EGIN  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE IGERI EGIN

POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA  
POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE EGIN SALTOKA

POZIK BAZAUDE MUGI BURUA  
POZIK BAZAUDE MUGI BURUA  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE MUGI BURUA

POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN  
POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE GIRA BUELTA EMAN

POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU  
POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU  
POZIK BAZAUDE ESKOLAN, ETXEAN TA KALEAN  
POZIK BAZAUDE OIHU EGIZU!



### 11. XALALA RIKI-RIKI!

XALALA! RIKI RIKI!  
XALALA! RIKI! RI!  
DUTXAN DARDARAKA  
UR HOTZAREKIN.

HARTU ESPONJA TA XABOITU  
BURUA BUSTI  
IGURTZIZ GARBITU  
TXILBOR ETA TITI  
JIRA BIRA IPURDIA  
MUGITU BETI  
BI OINETAN BUKAERA  
EZ DAGO GAIZKI.



### 12. MARI TXIPI

KALEAN NINDOALA MARI TXIPI IKUSI NUEN  
ETA ERAKUTSI ZIDAN "MARI TXIPI" DANTZATZEN  
DANTZA TXIPI TXIPI, DANTZA TXIPI TXO  
DANTZA TXIPI TXIPI ETA DANTZATU GOGOZI!

### 13. ANIMALIEN IBILKERA

OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK  
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)

SUGEA ARRASTAKA DABIL (X3)  
*OIHANETIK BADOAZ...*

TXANTXANGORRIA HEGAN DOA (X3)  
*OIHANETIK BADOAZ...*

BARRASKILOA MOTEL DOA (X3)  
*OIHANETIK BADOAZ...*

BASURDEA SALTOKA DABIL (X3)  
*OIHANETIK BADOAZ...*

### 14. POLONESA

ERRALDOIAK DANTZAN DAUDE KILIKIAK JOTZEN  
GOAZEN GUZTIOK FESTARA MUGITU ZAITEZTE!!  
DANTZARA BAI BAI! FESTARA BAI BAI! LAGUNAK BAI  
BAI! ONGI PASATZEKO MODU ONENA  
KALEAK, IRRIEZ BETETZERA!

### 15. ALEMANA

E, E, ERRALDOI!  
E, E, ERRALDOI!

ERRALDOIA DANTZAN HASI DA  
HANDI-HANDIA, HANDI-HANDIA.  
ERRALDOIA DANTZAN ARI DA  
LUZE-LUZZEA, LUZE-LUZZEA.

JIRA ETA BIRA ETA JIRA BUELTAKA  
JIRA ETA BIRA ETA JIRA BUELTAKA

E, E, ERRALDOI!  
JIRA, BIRA, JIRA, BIRA, JIRA, BIRA BUELTA-BUELTAKA!

JIRA BIRA BUELTAKA, JIRA BIRA BUELTAKA  
ETA DENOK TXALOKA ERRALDOIAK.  
JIRA BIRA BUELTAKA, JIRA BIRA BUELTAKA  
ETA DENOK TXALOKA

### 16. SORGINA PIRULINA

SORGINA PIRULINA ERRATZA GAINEAN,  
IPURDIA ZIKINA, KAPELA BURUAN.

- SORGINA SORGINA IPURDIA ZIKINA,  
TENTEZA ZARA ZU?  
EZETZ HARRAPATU

### 17. IKUSI MENDIZALEAK

IKUSI MENDIZALEAK  
BASO ETA ZELAIK,  
MENDI TONTOR GAINERA  
IGON BEHAR DOGU.  
EZ NEKEAK, EZTA BIDE TXARRAK  
GORA, GORA EUSKALERRIA.  
GU EUSKALDUNAK GARA  
EUSKALERRIKOAK.

HEMEN MENDI TONTORREAN  
EUSKAL LURREN ARTEAN  
BEGIAK ZABALDURIK  
BIHOTZA ERRETA.  
HAIN EDERRA, HAIN POLITA DA TA,  
GORA, GORA EUSKALERRIA.  
GU EUSKALDUNAK GARA  
EUSKALERRIKOAK.



## 18. ORPO PUNTA

ORPO PUNTA, ORPO PUNTA  
AURRERA ETA ITZULIKA.  
ORPO PUNTA, ORPO PUNTA  
AURRERA ETA ITZULIKA.  
ORPO PUNTA, ORPO PUNTA  
AURRERA ETA ITZULIKA.  
ORPO PUNTA, ORPO PUNTA  
AURRERA ETA BERTAN.

PLIS, PLIS, PLAS, TXALOKA  
JIRAKA ETA BIRAKA.  
PLIS, PLIS, PLAS, TXALOKA  
JIRAKA ETA BIRAKA.  
PLIS, PLIS, PLAS, TXALOKA  
JIRAKA ETA BIRAKA.  
PLIS, PLIS, PLAS, TXALOKA  
JIRAKA ETA BIRAKA.

## 19. XU XU XUABE

OSO ONGI EGITEN DUZULAKO  
MUGITU BESOAK OLATUAK BEZALA  
XUABE, XUABE, XU, XU, XUABE  
EH! \_\_\_\_\_, HASI DANTZATZEN!!!

## 20. DOMINO ABANTI

DOMINO ABANTI,  
DOMINO PREGO  
BURUA GORA  
HANKAK OKERTU  
IPURDIA KANPORA  
BEGI BAT ITXI  
MINGAINA ATERA  
AURRERANTZ IBILI

TRIKITIXA TRIKITIXA TRIKITIXA XA XA (X2)

## 21. TXIKI TXIKIA

TXIKI, TXIKI, TXIKIA  
IKUSTEN NAIZ KALEAN  
HANDITZEN, HANDITZEN  
HASI NAIZ HAUNDITZEN  
TXIKIA IZANIK ASKO  
MAITE ZAITUT NIK.

BI BEGI IKUSTEKO,  
BI BELARRI ENTZUTEKO,  
HANDITZEN, HANDITZEN...

AHOA GOZATZEKO,  
SUDURRA USAINTEKO,  
HANDITZEN, HANDITZEN...

ESKUAK UKITZEKO,  
BI OINAK IBILTZEKO,  
HANDITZEN, HANDITZEN...

BURUA PENTSATZEKO,  
BIHOTZA MAITATZEKO,  
HANDITZEN, HANDITZEN...

## 22. MUSIKA TRESNAK

MUSIKA EGIN DEZAGUN, MUSIKA TRESNAK HARTUZ,  
IRRI HANDI BAT MARGOTU ETA KALEAN LAGUNEKIN  
DANTZATUX2

DANBORRA JO DANBORRA PORONPORONPONPON...

*MUSIKA EGIN DEZAGUN...*

BIOLINA JO BIOLINA JO ÑIÑIÑIRIÑIÑI...  
DANBORRA JO DANBORRA JO PORONPORONPONPON...

*MUSIKA EGIN DEZAGUN...*

TRONPETA JO TRONPETA JO TURUTURUTUTU...  
BIOLINA JO BIOLINA JO ÑIÑIÑIÑIÑIÑIÑI...  
DANBORRA JO DANBORRA JO PORONPORONPONPON...

*MUSIKA EGIN DEZAGUN...*

TXALAPARTA JO TXALAPARTA JO TTAKUN TTAKUN  
TTAKUN...

TRONPETA JO TRONPETA JO TURUTURUTUTU...  
BIOLINA JO BIOLINA JO ÑIÑIÑIÑIÑIÑIÑI...  
DANBORRA JO DANBORRA JO PORONPORONPONPON...

*MUSIKA EGIN DEZAGUN...*

## 23. MAKETUME TUME

MAKETUME TUME PAPA  
MAKETUME TUME PA (X2)

TUTUE TUTUE PAPA  
TUTUE TUTUE PA (X2)

IENE IENE IENE IA  
IENE IENE IENE IA



## 24. TOPE-TOPE TOMATXA

TOPE-TOPE TOMATXA  
HAU DA ESKUEN MARTXA  
TOPE-TOPE TOMATXA  
BASOTIK DA BILDOTSA

GOIAN DAGO EGUZKIA  
ERREKAN ZUBIA  
KIRRINKA DOA GURDIA  
TXIS PUN! SUZIRIA

*TOPE-TOPE TOMATXA...*

KILI-KILIKA SUDURRA  
IKUTU MUTURRA  
MALKARRAK BI BEGIETAN  
PUTZA MASAILETAN

*TOPE-TOPE TOMATXA...*

## 25. SUA

IRRINTZI ARRANTZA SORGIN DANTZA  
SUARI BEGIRA BIRIBILKETAN

BIHURTU DIRA ERREKAK ARDO  
HARRIAK OGI BELARRAK ARTO.  
BIHURTU DIRA GIZONAK AKER  
ANDREAK OILO UMEAK KILKER. (X2)

UKENDU, UKENDU  
EMAN ETA KENDU.  
UKENDU UKENDU  
BADUGU BAGENDU. (X2)

BIHURTU DIRA...(X2)

BADUGU BAGENDU  
EMAN ETA KENDU.  
BERRIAK SORTU TA  
ZAHARRAK MANTENDU.

UKENDU, UKENDU...

BIHURTU DIRA...

## 26. URRUTIAN HELIKOPTEROA

URRUTIAN ZERUTIK HELIKOPTEROA,  
TUKUTUKU, TUKUTUKU, TUKUTUKU, TUKUTUKU, TU!  
MENDIAN BARRENA HELDU DA TRENA  
TXUKU, TXUKU, TXUKU, TXUKU, TXU!  
EZ DA FALTA ANBULANTZIA,  
NI NO NI NO NI NO NI  
ZER GERTATU OTE DA BADA?  
UI, UI, UI, UI...

TXAKURRA ZAUNKA ETA ZAUNKA (AU)  
ARDIA ZUHAITZEAN IGOTA (BEE)  
HONTZA EZIN LOAK HARTUTA (UUUH)...

## URRUTIAN ZERUTIK HELIKOPTEROA...

TXAKURRA ZAUNKA ETA ZAUNKA (AU)  
ARDIA ZUHAITZEAN IGOTA (BEE)  
ADARRAK EZIN ZAMAREKIN (KRAS)  
BEHIAREN GAINEAN ERORI (MUU)  
HONTZA EZIN LOAK HARTUTA, (UUUH)...

## URRUTIAN ZERUTIK HELIKOPTEROA...

TXAKURRA ZAUNKA ETA ZAUNKA (AU)  
ARDIA ZUHAITZEAN IGOTA (BEE)  
ADARRAK EZIN ZAMAREKIN (KRAS)  
BEHIAREN GAINEAN ERORI (MUU)  
SUSTOAREKIN KAKAPLASTA (PLASTA-PLASTA)  
ERLEA KAKAZ ZIKIN-ZIKIN! (AJ)  
HONTZA EZIN LOAK HARTUTA (UUUH)...

ZUHAITZ ADARRA HELIKOPTEROAN,  
TUKUTUKU, TUKUTUKU, TUKUTUKU, TUKUTUKU, TU!  
HONTZAK LOGUREAK HARTU DU TRENA,  
TXUKU, TXUKU, TXUKU, TXUKU, TXU  
TA BESTEAK ANBULANTZIAN,  
NI NO NI NO NI NO NI  
HORI DENA GERTATU DA BA!  
UI, UI, UI, UI...



## 27. ONEKA

MARRAZO HANDI HONEK  
SORTARAZTEN DU BELDURRA  
MARRAZO HANDI HONEK  
BOST HIZKIKO IZENA DU

O-N-E-K-A (X3)  
ONEKA DU IZENA

MARRAZO HANDI HONEK...  
N-E-K-A (X3)  
ONEKA DU IZENA

...

E-K-A

K-A

A

## 28. ASTONAUTA

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, NORA ZOAZ HAIN  
DESPISTAUTA? HORI EZ DA ILARGIA, UTZI PAKEAN  
IPURTARGIA!

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, NORA ZOAZ HAIN  
DESPISTAUTA? HORI EZ DA EGUZKIA, TA JAN  
BEHINGOZ ARRAUTZA!

KOHETEAREN ORDEZ, NAHI DU IGOGAILUA,  
HAU DA HAU ASTRONAUTA, HAU DA HAU KANKAILUA!

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA...

OGITARTEKO GISA JATEN DU TOMATEA,  
HAU DA HAU ASTRONAUTA, HAU DA HAU ZELEBREA!

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA...

IPUINAK IKUSTEKO DARABIL IPURTARGIA,  
HAU DA HAU ASTRONAUTA, HAU DA HAU  
MAITAGARRIA.

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA...

## 29. IBILERAK

DENOK IBILERA DESBERDINA DUGU  
DENOK IBILERA BEREZIA  
MODU BATERA EDO BESTERA  
DESBERDINA BEZAIN BEREZIA

MATXINSALTOA, MATXINSALTOA...  
GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

TXINGO-TXINGOKA...  
GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

KARRAMARROA, KARRAMARROA...  
GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

HANKA PUNTETAN, HANKA PUNTETAN...  
GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

PINGUINOA, PINGUINOA...  
GOAZEN BERRIZ HASTERA, BADA DENOK LERRORA!

## 30. RANROBERRAN

UZTAIAK GORA GORA LURRETIK ZERURA

GIRA ALDE BATERA TA GERO BESTERA

TA BEHERA, BEHERA, BEHERA

TA BEHERA, BEHERA, BAI,

UZTAI BARRUAN PRESO GELDITU NAIZ ORAIN, HEI!

RANROBERRAN POPOPOPOPOPOPO...

## 31. AZOKARA

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA  
EROSI NUEN TXAKUR TXIKI BAT  
TXAKUR TXIKIAREN TXAU-TXAU-TXAU  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA  
EROSI NUEN KATU TXIKI BAT  
KATU TXIKIAREN MIAU-MIAU-MIAU  
TXAKUR TXIKIAREN TXAU-TXAU-TXAU  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA  
EROSI NUEN TXORI TXIKI BAT  
TXORI TXIKIAREN TXIO-TXIO-TXIO  
KATU TXIKIAREN MIAU-MIAU-MIAU  
TXAKUR TXIKIAREN TXAU-TXAU-TXAU  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA  
EROSI NUEN AHATE TXIKI BAT  
AHATE TXIKIAREN KUA-KUA-KUA  
TXORI TXIKIAREN TXIO-TXIO-TXIO  
KATU TXIKIAREN MIAU-MIAU-MIAU  
TXAKUR TXIKIAREN TXAU-TXAU-TXAU  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA  
EROSI NUEN ARDI TXIKI BAT  
ARDI TXIKIAREN BE-BE-BE  
AHATE TXIKIAREN KUA-KUA-KUA  
TXORI TXIKIAREN TXIO-TXIO-TXIO  
KATU TXIKIAREN MIAU-MIAU-MIAU  
TXAKUR TXIKIAREN TXAU-TXAU-TXAU  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA  
ZAPALDU NUEN SATOR TXIKI BAT  
SATOR TXIKIAREN AI-AI-AI  
ARDI TXIKIAREN BE-BE-BE  
AHATE TXIKIAREN KUA-KUA-KUA  
TXORI TXIKIAREN TXIO-TXIO-TXIO  
KATU TXIKIAREN MIAU-MIAU-MIAU  
TXAKUR TXIKIAREN TXAU-TXAU-TXAU  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK  
HARA ZE GAUA PASA NUEN NIK.

## 32. HAN ZEUDEN

HAN ZEUDEN KROKODILO ETA TXIMUA

ARRATOI TXIKI ETA ARDI TXURIA

KATU. OILO, ELEFANTE, EZ ZEN EZER FALTA

EZ DAKIT ONDO ESAN DUDAN

GOAZEN BERRIRO HASTERA!



### 33. ISIL ISILIK

ISIL ISILIK DAGO  
KAIAN BARRENEAN  
ONTZI TXURI POLIT BAT  
URAREN GAINEAN.

GOIZEKO ORDUBIETAN  
ESNATUTZEN GARA  
ARRANTZALEAK BETI  
JOATEKO URRUTIRA.

ZERGAITIK, ZERGAITIK,  
ZERGAITIK, ZERGAITIK?  
ZERGAITIK NEGAR EGIN?  
ZERUAN IZARRA DAGO  
ITSASO ALDETIK.

BAT, BAT, BAT,  
BART PARRANDAN IBILI  
BART PARRANDAN IBILI  
BI, BI, BI,  
EZ NAIZ ONDO IBILI  
EZ NAIZ ONDO IBILI  
HIRU, HIRU, HIRU  
KOLKOA BETE DIRU  
KOLKOA BETE DIRU  
LAU, LAU, LAU  
SARDINA BAKALAU.

ANTERON TXAPARROTIA  
KAISAREN BIBOTIAK  
HARETXEK EZ DAUKA  
PRESKO TXIPIROIAK.

HAU DEK, HAU DEK.  
HAU DEK UMORIA!  
KONTSOLATZEKO,  
KONTSOLATZEKO,  
EUSKALDUN JENDIA.

KALIAN GORA,  
KALIAN BEHERA,  
KALIAN GORA ZEZENAK,  
AI AI AI AI!  
KALIAN GORA,  
KALIAN BEHERA,  
KALIAN GORA ZEZENAK,

KALIAN GORA,  
KALIAN BEHERA,  
KALIAN GORA,  
KALIAN BEHERA,  
KALIAN GORA,  
KALIAN BEHERA,  
KALIAN GORA ZEZENAK

